



ANDOAINGO UDALA

ANDOAINEN ZAINZA LANEKIN ZER?

ZAINZAK DEMOKRATIZATZEKO GIDALIBURUA

Eskuartean duzuna, *Zaintza lanen demokratizazio-
rantz: Andoaingo zaintza erregimenaren diagnosti-
koa eta ekintzarako ardatzak 2021* lanaren ondorio
nagusiak jasotzen dituen gidaliburua da. Aurreko
urtean, Andoaingo Udalak Emagin Elkartearen zein
herriko hainbat zaintzaileen laguntzarekin egin
zuen diagnostiko zabal horren laburpena duzu.
Andoaingo zaintzaile profesionalen, etxeko langi-
leen, zaintzaile afektiboen zein ama gazteen espe-
rientzia, errelato zein beharretan oinarritutako lan
kualitatiboa da.

Lanaren helburua argia da: zaintza lanen antolake-
ta bidegabeari aurre egitea, eta horiek demokrati-
zazio bidean jartzeko aldaketak sustatzea. Horiek
hauspotzeko ordea, zure laguntza behar dugu. Ho-
rregatik, udazkenetik aurrera martxan jarriko du-
gun herri prozesuan parte hartzeko deia egin nahi
dizugu.

Eta Andoainen zaintza lanekin zer egingo dugu?

1

ZAINTZA LANAK: Zertaz ari gara?

Zaintzak izan daitezke dena eta ezer ez. Dira lanak, denborak eta esfortzuak bizitzak bizitza izateko. Dira prozesu zehatzak, zuzenak eta, era berean, prozesu ikusezina, zeharkakoak. Subjektibitate handiko lanak dira, emozio, sentipen, afektu, afektu eza zein maitasun edo maitasun ezarekin lotzen direnak. Ez dira ekintza bakarra; hots, askotarikoak dira. Uztartu daitezke eta horrek zama ere areagotzea ekar dezake. Etengabeko ardura eta disponibilitatea eskatzen dute askotan, zerbaiti arretaz egotea, begirale gisa egotea. Ondorioz, esan dezakegu, ez dela lan zehatz bat, lan bat egiteko denbora potentziala baizik.

Bizitza mantentzen dute eta gainera ongizatea eskaintzen digute. Gure existentziaren oinarri dira. Gure zaugarritasunari aurre egiteko era bakarra elkar zainduz

da. Horien bidez, harremanean jartzen gaituzte gu denok, eta jendartea eraikitzen da, eta komunitatea eraiki. Gainera, indarkeria eta gizarte ondoeza (gerra, infrazioa, etxegabetzeak, parte hartzeko aukerak murriztuta...) gailentzen den momentu honetan, inoiz baino beharrezkoagoak ditugu komunitateak, taldeen babesa. Zaugarritasunak beldurra ematen digu, eta askotan, beldurrak ekintzarako gaitasuna mugatzen digu eta joera indibiduala gailentzen da. "Sálvese quien pueda" hortatik ateratzeko gako dira zaintza lanak. Arrakasta indibiduala, enpatia eza eta konpetitibitatea kolokan jartzen dituzte, eta harreman sozialak erroto aldatzeko giltzarriak eman.


A

Halabaina, ezin ditugu zaintzak esentzializatu eta erroman-tizatu. Bi alde dituzte: batak eraldaketa zein askatasuna-rekin lotu gaitzeke; besteak, zapalkuntza eta diskrimina-zioarekin. Gatazka eremua dira ez direnean baldintza justoetan egiten, ez direnean eskubideak errespetatzen, beharrak kon-tuan hartzen edo egin nahi ez direnean. Abusu asko gertatzen dira, eta tranpa horiek guztiak azaleratzea, zaintza lanak de-mokratizazio bidean jartzeko ezinbestekoa da.

ZAINTZA KRISIA

Gaur egun zaintza lanak anto-latzeko dugun moduak ez ditu gizartean dauden beharrak asetzen eta datozen urteetan egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute datuek, zain-tzak beste era batera antolatzen ez baditugu behintzat.

Aldaketa soziodemografikoak, mendekotasun indizearen gorakadak, emakumeen lan merkaturatzea areagotzeak, politika neoliberalen gara-penak, eta sistema publikoa higatzeak, eta askotariko familia ereduen hedapenak, zaintzak antolatzeko mo-duetan eragin handia izan dute, eta, ondorioz, zaintza krisiaz mintzo gara.



ZAINTZAREN KATE GLOBALA

Zaintza krisiak areagotu egin ditu Europako zeinbait herrialdeetan ditugun premiak, eta horrek bultzatuta, hegoalde globaleko herrialdeetako emakumeek migrazio prozesuak bultzatu. Emakume etorkin eta arrazializatuak dira nagusi zaintza lanetan, bai administrazio publikoak bultzatutako zerbitzuetan, bai merkatuaren logikan mugitzen diren beselakoetan (irabazi asmoko enpresetan), bai etxeko langileen kasuan ere. Horregatik, ikuspegi transnazionalak zeharkatu behar dute zaintza lanen antolaketaz egiten ditugun hausnarketak.

C

ZAINTZA: ETIKA ATZERAKOIAK BALDINTZATUA

Zaintza erregimen bidegabe honetan, askotariko fenomenoak elkarlotzen dira: lan prekarietatea, lan merkatuko segmentazioa, pobreziaren feminizazioa, jardun bikoitzak, denbora pobrezia, bizi proiektuen alboratzea, bazterketa soziala eta indarkeria matxista

Hiperfeminizazioa

Emakumeak dira nagusi zaintza lan profesional eta ez profesionaletan. Gizonen hutsunea nabaria da bai batean zein bestean.

Familiarizazioa

Familiak dira zaintza lan emakume nagusiak, eta ardura handiena hartzen dutenak. Gainera, familiako zaintzak dira desio ditugunak, eta lehenesten ditugunak, gure zaintza iruditeria medio. Familien barruan, emakumeak dira zaintzaile nagusiak.

Zaintza lanetan eragiten duten legeak

- 4/200 Atzerriartasun lege organikoa.
- 16/2022 Errege Dekretua, etxeko zerbitzuaren izaera bereziari buruzkoa.
- 27/2011 legea, Gizarte Segurantzareko erregimenari buruzkoa.
- 39/2006 Mendekotasun legea.
- 2008ko EAE Gizarte zerbitzuen legea.

Desfamiliarizazio estrategiak

- **Repribatizatuak:** Etxeko langileen kontratazioa da nagusia.
- **Merkantilizatuak:** Irabazi asmoa duten enpresak gailentzen dira.
- **Informalak:** Askotan ez daude lege arauen menpe (etxeko langile internak, adibidez).

ANDOINGO EGOERAREN ZERTZELADA BATZUK

DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK:

+3

0-14 bitarteko biztanleriak 3
puntu gora egin du
hamarkada batean.

+6


65 urtetik gorakoen kasuan
6 puntutik gora igo da
populazioa.

+ %25

Mendekotasun indizeak
%25 gora egin du
2008tik 2020ra.

546

Guztira 546 pertsonak dute
mendekotasuna aitortua
Andoainen.



HERRIKO ZAINZA ZERBITZU PUBLIKO NAGUSIAK:

90-110

Etkez etxeko zerbitzua:
90-110 erabiltzaile.

erresidentzia

Erresidentzia.
Kabia fundazioan sartuta.

beste zerbitzuak

Urrutiko laguntza,
laguntza teknikoa,
bidez bide zerbitzua,
Ibili Andoain, Sendian.

300

Prestazio ekonomikoak:
300 prestazio.

22/10

Eguneko zentroa:
22 plaza/10 asteburuetan.

16

Etxe tutelatuen 16 plaza.

AMATASUNAK: epai sozialaren jo puntuan

Ama egin eta honi loturiko bizi-penak askotarikoak dira, hori bai, elementu komun batek ardaizen ditu: egunerokoan egin beharreko malabarismo ariketa etengabeak. Haurraren hazkuntzaren ardura, batik bat, emakumeei egozten zaie jendarte patriarkalean. Hartara, emakumeen bizitza pertsonal eta profesionaleko baldintza prekarioetan sostengatzen da haurren zaintza.

Ama egiteko prozesuaren aldi ezberdinetan osasun zerbitzu publikoen arreta jaso behar dute emakumeek. Egun, Osakidetzak eskaintzen dituen erditze aurreko saioak motz geratzen dira, berandu hasi eta ongizate fisikoan soilik arreta jartzen dute. Hala-ber, erditze garaiko protokoloitsu eta zurrunek haurdunaren ongizatea baino, haur berriaren jaiotza lehenesten dute. Osasun

“ *Olagarro bat bezela... Nere eguna bezperan hasten da antolatzen umearen zaintza. Lanaren baitan eta aiton-amonen posibilitadeen baitan egiten det krokisa (Ama, 29 urte).*

“ *Eta nik, ahal bazen edoskitze naturala eman nahi nion, hau da bularra eman nahi nion eta horrela izan zen. Orduan, bai lehengoarekin bai bigarrenarekin, urte oso horretan ez nuen lanik egin. Langabezia akumulatua nuen eta hori kobratzen egon nintzen (Ama, 45 urte).*



erreproduktiborako arreta ginekologikoan tratu desatseginak jaso dituzte Andoaingo zenbait amek, eta indarkeria obstetrikorako eremu dela ere jakitun dira. Zentzu horretan, osasun publikoak egun duen ginekologiaren ulerkerari, eta haurdunaldi eta erditze prozesuak bideratzen dituen moduari mesfidantzaz begiratzen diote amek.

Hartara, gero eta gehiago dira erditzearen dauden gorputzen beharrak erdigunean jarriko dituen haurdunaldi eta erditzearen ulerkeraren bila, eremu pribatuan edo komunitarioan emagin, psikologo eta hazkuntza taldeetara jotzen duten gurasoak. Noski, horretarako baliabide gaitasuna dutenek soilik jotzen dute.



Nola sostengatu hau zuk lanaldi hori baduzu eta ni orain baldin banao, Merezi du? Nola eraman eta jasoko ditugu? Edo zerbait ikas-teko edo gauza horietarako [...] balantzan jartzen dezu: merezi du? edo orain igual egon behar det horretara (Ama, 45 urte).

Ama izan ala ez, etengabeakoak dira emakumeek amatasunaren ideari loturik jendartearen partetik jasotzen duten presioa eta epaia. Eta adingabea haien kargu duten amen gaineko iruzkinak etengabeak dira osasun zerbitzuetan, senitartean edota kalean. Sare komunitarioaren babesa, ama egin diren beste batzuekin bizipen eta jakintzak partekatzea eta gogoeta feminista helduleku nagusi dira, amatasunaren bizipen anitzak patriarkatuaren uztarritik askatzeko.

“*“Eta zuek noiz? Eta zuek noiz?” Eske mala ostia batean jartzen nintzen, eta zueri ze ostia inporta zai-zue? Eta eduki nahi ez badugu zer? Eta gogoratzen naiz sentitzen nuela presio bat, etxean bertan nuen. Eta asko asko erre ninduen horrek 30 urteren bueltan (Ama 45 urte).*”

“*Denetan justifikatu beharra. Nekea, neke asko, justifikatu behar izatea egiten dudan guztia [...] Eske edozer gauza. Utzi umea eta batetik “no te sientas culpable” eta bestetik “¿que ha estado toda la mañana sin tí?” (Ama, 29 urte).*”

SENITARTEKOEN ZAINITZA: berehalakoan eta luzaroan

Senideen zaintza ardura beregain duten emakumeen egunerokoa mendekotasuna duen senidea ardatzearekin hasi eta amaitzen da. Etengabeko ardura intentsiboa da eta emakumeek haien egunerokoa zaintzen dituzten pertsonen ongizatea bermatzera norabidetzen dute.

Familiako zaintzaile gehienek eguneko 24 orduetan zainduaren gainean egoteko beharra partekatzen dute, jarduerak aldatzen diren arren. Izan ere, zainduak bere kabuz egin ditzakeen jarduerak egonik ere, modu egokian burutu dituen berrikusi beharra izaten dute senideek. Horregatik, zaintzen duten senideen lan-zama ulertzerakoan ezinbestekoa da zaintza lanen aldiberekotasuna kontuan hartzea: zaintza lanak ez dira jarduera zehatzak soilik, etengabeko arreta eskatzen dute eta, beraz, egoera mental bat dira. Horrela uler daiteke senideen artean partekatzen den egun guztiak antzekoak izatearen sententzia, zereginak aldatuta ere.



Yo cuido de mi hermana. Bueno, he cuidado también a mi madre. Toda la vida he estado cuidando: primero a mi madre, luego a mis hijos y ahora a mi hermana. Mi hermana tiene 77 años, tiene deficiencia mental (Familiako zaintzailea).

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza pertsonalizatua ematea lan gogorra izan ohi da, eta ondorio fisiko, psikosozial eta ekonomikoak ditu arta ematen duten haiengan. Hala, familiako zaintzaile nagusiek estrategia ezberdinak bilatzen dituzte lan-zama arindu, familiako ekonomia sostengatu eta beraien ongizatea zaintzeko. Familiako beste kideen batengana, zerbitzu publikoetara edo, gaitasun ekonomikoa dutenek, eremu pribatura jotzen

dute laguntza bila. Hala ere, ez dira menpeko pertsonarekiko arduratik eta kezkatik libratzen, eta are gehiago, zerbitzu publikoen laguntza nahikoa ez dela jakin badakite. Horregatik, zaintza lanen zamak eragindako tentsioak muturreko egoerara eraman dituzte elkarrizketaturiko emakumeak eta laguntza psikologiko profesionalera ere jo dute ondoeza arindu asmoz.

Elkarrizketatuen lekukotzetan aztertu ahal izan dugu, nola oztopoz josiriko bizi ibilbideak izan dituzten mendekotasun egoeraren dagoen pertsona baten zaintza haiengan erori izanagatik. Izan ere, familiako zaintzaile nagusi izatea, gizarte bazterkeria egoerara eramateko arrisku faktore da, besteak beste, baliabide ekonomiko gabezia, enplegu prekarietatea edo langabezia, harreman sozialen haustura eta babes komunitario falta edo parte hartze soziopolitikorako ezintasuna eragiten baititu.

“ Y he notado mucho alivio con el centro de día. Tengo unas horitas para mí y ella está muy contenta, piensa que va al cole. Y super contenta (Familiako zaintzailea, 76 urte).

“ He perdido la vida social. Cuando eran pequeños socializaba algo, pero ya cuando enfermó mi padre... empecé a tener todo el día ocupado, lo vas dejando y he ido cerrando puertas. A mí el Centro de Día me da para trabajar, no para tener tiempo para mí. No tengo tiempo para mí, ninguno (Familiako zaintzailea, 49 urte).

“ Muchas veces,
cuando estás mal y
crees que no puedes más.
Si hubiera alguien que
cogiera el testigo te tum-
babas, pero... (Familiako
zaintzailea, 49 urte).

“ Mi madre cobra
una pensión más o
menos decente y porque yo
trabajo, por que si no te ves
axfisiadísima económicamen-
te. Esto puede ser una ruina
total (Familiako zaintzailea,
76 urte).



ZAINZAILA PROFESIONALAK: prekarizatutako eremua

EAEko desfamiliarizazio prozesuen ondorioz, zerbitzu pribatuak kontratatzeko joera izan dute familia askok. Horien artean, etxeko langileak kontratatzea da hartutako estrategia nagusia. EAE da zaintzen externalizazio estrategia gisa, etxeko langile gehien kontratatzen dituen Espainiako lurraldea. Zerbitzu sozial sarea beste lurralde batzuetan baino garatuagoa izan arren, nahiago dugu etxeko testuinguruan hornitzea zaintzak. Familiako kide baten hutsunearen aurrean, hortaz, "familiakoa bezalakoa den" pertsona batek zaintzea nahiago dugu.

Hala eta guztiz ere, badira zerbitzu publikoen alde egiten dutenak ere. Tokiko administrazioak eskaintzen dituen baliabideen artean prestazioak jasotzea da

ERRESIDENTZIAKO LANGILEA:

“ A mí no me gustaría que me marcaran cuándo tengo que ir al baño, cuándo me puedo levantar, “voy al baño” “no, no, no espera que venga el otro”. Y te dicen a un rato: “ahora no hace falta que vengas, ahora lo que me hace falta es que me limpies los pantalones”. Qué pena. Todo es (isilunea). Marcan todo en un papel, pero los tiempos no son reales.

“ (...) Dicen: “un abuelo aquí se tiene que sentir en su casa”. ¿Pero si no les dejamos hacer nada? ¿Si no hay tiempo para nada? Un abuelo va a recoger la servilleta y dice una: “¡sacarle de ahí!”. No les dejamos ni recoger una servilleta. Y cuando yo entré, incluso había abuelas que entraban en la lavandería y ayudaban a doblar servilletas, o cosían botones, y se sentían válidos.

ETXEZ ETXeko ZERBITZUA:

**Las personas a las que
atiendes sí lo valoran
mucho, ¿ no?**

“

*Sí, mucho. Además
están esperando.*

*Están esperando a que ven-
gas, porque saben que les
vas a dar un beso. Aunque
estén con la familia eh...*

*"¿Qué traes de nuevo, qué
vamos a hacer hoy?" Pues
mira, te voy a afeitar, ya he
traído tiritas por si acaso
por si te corto.*

“

*(...) Y luego me dijo
el hijo: "qué labor*

*has hecho con mi padre y
con mi madre". Ahora está
en el hospital y no creo que
vuelva... Hoy he estado por
teléfono con él y me ha pe-
dido que vaya, que le lleve
flan. Y así.*

egiten den hautu nagusia, baina askotan etxez etxeko zerbitzuarekin, edota eguneko zentroarekin osatu egiten da. Erresidentzietan ingresatzea izaten da, muturreko egoeratan hartzen den erabakia. Tutoretzapeko apartamentu asko ez daude Andoainen, eta horregatik, edo beste hautu batzuk gertuagokoak direlako, ez da lehen aukera izaten. Ezin dugu ahaztu gainera, menpekotasun maila 1 duten pertsonei zuzendutako zerbitzuaz ari garela.

Lan horietan jarduten duten gehiengoak emakumeak dira eta adin tarte zabala dute, 30 urtetik 65 urtera. Zerbitzu publikoekin lotura duten langileak azpikontratatu izan den enpresa bateko kide dira eta gehienak Euskal Herrian jaiotakoak dira, nahiz eta pixkanaka emakume migranteak ere zerbitzu hauetan geroz eta

presentzia gehiago duten. Etxeko zerbitzuetan lanean dihardutenen artean, aldiz, migratutako emakume kopuru handiagoa dago.

Haien lana gutxietsia dago, eta denbora pobrezia aurre egin behar diote; hots, beti erlojuaren kontra jarduten dutela uste dute. Soldatak murrizak dira, formazioa ere asko garatzeko dago, eta baliabideen faltan sentitzen dira askotan. Horrek, zerbitzuaren kalitatean eragiten du, ratioak, denborak, langile kopuruak, zerbitzuaren garapena... ez dituzte beharrak asetzen.

EGUNEKO ZENTROKO LANGILEA:

“ *Eta soldata? (Parre egiten du) Momentu honetan gure basia dago 1500 inguru, hortikan kendu behar dia gauzak, eta orain gu kongelatuta gaude eta gaude 1400 inguru. Eta eztigute igo-tzen kobratu beharko genuke-na. Honek ez du dirurik ematen, eta etzaie interesatzen.*

“ *Eulenek kudeatzen du. Gaude oraindik 2020ko atrasoa jaso gabe, 2021 igo gabe...18-19koak kobratu genituen lengo urten udaletxearekin jarri ginelako atzetikan... eta bueno... Momentu honetan ez dute lan hitzarmena berrituta, eta aurrekoak funtzionatzen du, izoztuta gelditzen da. Orduan karo gu gaude nomina izoztuta, ba eztaikit noiztik karo.*

ETXEKO LANGILEAK

Andoaingo datuei erreparatuta, 2022ko urtarrilean, 103 pertsona zeuden izena emanda Etxeko zerbitzuen erregimen berezian (Espainiako langileen afiliazioa, 2022ko urtarrila). Mundu mailako joerak mantentzen badira, adierazi dezakegu %90 baino gehiago izango direla emakumeak eta asko atzerritarrak izango direla. Gainera, kontuan hartuta kolektiboaren %49a ekonomia ezkutuan lanean ari dela, kopuru hori 2021azera pasako litzateke.

Etxeko eta zaintzak lanak besteenganatzeko joera ematen ari da gurean. Menpeko pertsonen zaintza bermatzeko ezintasunarekin lotura du askotan, baina, beste batzutan, aisialdirako denbora tarte zabalagoak izateko erabakiarekin. Horren atzean, gizonen erantzunkidetasun falta egon daiteke eta etxeetan genero gatazkak ekiditeko joera. Bada, horren isla da enplegatzaileen %15ak etxeko langilea

“ Mira, me preguntas eso y se me llenan los ojos de lágrimas. Porque eso es lo que queremos en Maitelan. No queremos que ninguna mujer tenga que pasar por trabajar interna y eso no es un trabajo digno para nadie. Yo llevo tres semanas en mi casa, parece que me han sacado de la cárcel. Parece que he estado presa, como si hubiese hecho algo a alguien. Yo sé que uno lo hace, es consensuado, nadie te ha obligado, pero la necesidad te obliga, a mí me obligó la necesidad.

duela, menpeko pertsonarik kargura izan gabe, zein etxetik kanpo lan egin gabe. Era berean, enplegatzaileen %26,2k etxetik kanpora lan egiten du eta etxeko langilea dute etxeko lanetarako bakar-bakarrak, ez baitute ez adineko, ez adin txikikorik kargupean. Eskatzen diren lanen %80 garbiketa eta bestelako etxeko lanak dira, eta ez adin txikiko eta zaharren zaintza. Hala ere, etxeko langilea duten etxeen %56k menpeko pertsonak zaintzeko beharrari erantzuteko da, seme-alabak zein zaharrak, eta zaintza bestelako etxeko lanekin uztartzen da.

Era berean, emakume migrante askoren enplegurako sarbide birlakatu da, eta haien egoera erregularizatzeko aukera bakarreneetakoa dute. Lan harremanak oso zailak dira, askotan egoera irregularrak daudelako, eta mehatxupean ere egon daitezkeelako. Eremu pribatuan ematen dira negozioak, eta ez dago lan inpekziorik etxeetan. Horrela, askoren egoera oso prekarioa da. Hori

“ Fue un año y medio muy muy duro. Demasiado. Ahora que no estoy trabajando de interna, como la vida me ha cambiado un montón. Por eso en Maite-lan no hay trabajo de interna siempre lo digo. Aquí nos llaman, “queremos una interna” y les decimos, les ofrecemos tres personas con jornadas de trabajo de 8 horas. Se les pasa presupuesto y hasta este día de hoy nadie ha aceptado.

asko areagotzen da interna gisa daudenen artean, lan baldintza eskasak izateaz gain, denbora oso gutxi dutelako haien bizimodua garatzeko, eta intimitaterik gabe bizi direlako. Osasunean eragin zuzena du horrek, baina pobrezia egoerak bultzatuta, edozein baldintza onartzeko derrigortuta daude.


Egoera horri aurre egiteko, ezin besteko bilakatu da askoren antolakuntza. Eskualdean Maitelan kooperatiba dugu horren adibide (www.maitelan.eus).

EKINTZARAKO IDEIAK

Ezinbestekoa da zaintza politika publikoen zeharkako ardatz birlakatzeta eta zaintza lanak aitortzeko, murrizteko eta birbanatzeko lanari lehentasuna ematea, tokian toki, erakunde publikoetan; hots, zaintza zerbitzuak kudeatu edo pribatizatu ordez, zaintza politika eraldatzaileak martxan jarri behar dira.

Horregatik, Andoainen, ekintza plana gauzatzeko datozen helburuak jarri ditugu, jakinik iparra zaintzaren eskubide kolektiboa bermatzeko prozesua martxan jartzea dela, eta hori ez dela egun batetik bestera aldatuko. Horrenbestez, zaintza lanak demokratizatzeko hasteko lau egiteko urgente ditugula jaso dugu: bata, zaintza lanen aitortza sozial eta politikoa lortzea; bestea, zaintza lanak era justoago batean banatzea, hurrengo autonomia eta agentzia sustatzen duen arreta eskaintzea eta, azkena, zaintza lanetan dauden pertsonen bizi zein lan baldintzak duin bihurtzea.

Horretarako, ezinbestekoa da hiru esparru nagusietan eragitea, jakinik guztietan eragiteko dugun gaitasuna ezberdina dela. Administrazio publikoan, merkatuan eta komunitatean eragiteko da egin nahi dugun ekintza proposamena. Era berean, proposatutako ekintzak izaera ezberdinekoak izango dira: formazioarekin eta eztabaida sozialarekin, ikerketa-rekin, ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoarekin, harremana izango dute.



HAINBAT IDEIA:

Hausnartzeko, proposamenak egiteko, zaintza lanen demokratizaziorantz aurrera egiteko egiturak sortu Andoainen.

Sentsibilizazio lana herrian.

Erantzunkidetasuna sustatzeko lana: gizon eta emakumeen artean lanak banatzea.

Bakardade egoeren prebentzioa, detekzioa, eta artatzea hobetu.

Zaintzaileen elkarguneak sortu.

Kontratazio pleguetan klausula sozialak, eta berdintasunekoak txertatu.

Etkez etxeko zerbitzuaren garpena aztertu.

Zerbitzuen eta baliabideen jarraipena eta hobekuntza.

Haur txikiekin egoteko negurako espazioak sortu.

Edoskitzeko espazio egokiak herrian.

Haurdunaldi eta haurdunaldi osteko prestakuntzak denboran hedatu.

Zaintzaileei begirako programa garatu.

Etxeko langileen errolda osatu.

Bitartekaritza laboralerako baliabideak jarri.

Ikasketen homologazioa sustatu.

Juridikoki aholkularitza familia eta profesionalentzat eskubideen inguruan.



Eta zuri zein ideia gehiago datozkizu burura?

ZAINTZA LANAK
SOZIALKI ETA
POLITIKOKI
AITORTZEA

Administrazioa

Komunitatea

ZAINTZA LANAK
MODU JUSTOAN
BANATZEA

AUTONOMIA ETA
AGENTZIAN
OINARRITUTAKO
ARRETA
ESKAINTZEA

Herritarrak

ZAINTZAILEEN
BIZI ETA LAN
BALDINTZAK
DUINTZEA